

Gezala AUDITORIUMA


IRAILA - septiembre

eguna/dia	ordua/hora	pelikula
LARUNBATA 2	16:30	MELOKOTONIO eta OLIMPIADAK
LARUNBATA 2	22:00	RAY
OSTEGUNA 7	22:00	CONTRA LA PARED
LARUNBATA 9	16:30	POXPOLIN MARISORGIN
LARUNBATA 9	22:00	EL AVIADOR
OSTEGUNA 21	22:00	QUIERO SER COMO BECKHAM
OSTIRALA 22 LARUNBATA 23	Ordutegia aurrerago iragarriko da	ANTZERIA ORRATXI TTIKI 1. Antoxin herensugearen miraria 2. Ortzadarraren istorioa 3. Eskola zoroa
LARUNBATA 23	22:00	LA PASION DE CRISTO
OSTEGUNA 28	22:00	PRISCILA REINA DEL DESIERTO
LARUNBATA 30	16:30	BOSTAK 8
LARUNBATA 30	22:00	DIARIOS DE MOTOCICLETA

Lezoko zine agenda

IRAILA SEPTIEMBRE

2006




Gezala AUDITORIUMA

zine ma 800



Lezoko Unibertsitateko Udala

**CONTRA LA PARED**


"Zeure bizitzarekin amaitu dezakezu zure buruaz bat egin gabe" baina nola? Hitz horiek mediku batek esaten dizkio protagonistari eta erantzuna erraza da: bizimodua aldatu eta beste berri bat hasiz. Erabat desberdinak izan eta elkarren arteko lotura etenezina sortzen duten muturrean bizi diren bi pertsonaien istorioa kontatzen da. Berlin 2004ean Urrezko hartza eta FIPRESCI saria irabazi zuen. Europako Zinema Akademiak ere 2 sari eman zizkion urte berean. 2005ean berriz, Goyetan atzerriko filmerik hoberenarena jaso zuen.

2004, Alemania, Turkia. 121 min. Fatih Akin.
Birol Ünel, Sibel Kekilli, Catrin Striebeck, Güven Kıraç.

ZINE EMANALDIRIK EZ DAGO**SANTAKRUTZAK 2006****QUIERO SER COMO BECKHAM**

Gai interesgarria lantzen du gizarte mailan dauden hainbat konfliktu batera tratatuz. Bi nesken arteko adiskidetasun harremana oinarri hartuta generoa eta kirolaren arteko lotura, kultura arteko harreman arazoak, familia arazoak, gazteen arazoak... Bai! gai guzti horiek (eta ziurrenik ahaztu zaigun besteren bat ere) lantzen ditu. Beste gauza bat, izenburuak amu errazegia eta komertziale-gia badirudi ere ez da horrela, pelikula benetan merezi du!

2002, EB, Alemania. 112 min. Gurinder Chadha.
Parminder Nagra, Keira Knightley, Jonathan Rhys Meyers, Anupam Kher.

**PRISCILA REINA DEL DESIERTO**

Kabaretetan lan egiten duten hiru artista kontratatzen dituzte Australiako desertuaren erdian dagoen Alice Springseko hotel batean. Autobus bat egokituko dute eta bertara abiatuko dira elkarbizitza gogor bezain interesgarri bati hasiera emanaz. Eszena batzuk antologikoak dira. Desertuaren erdian bi drag queen eta transexual bat dantzan ikusteak, koloreek eragindako mozkorrak sor dezakeen zerbait da. Road movie zoragarri eta zirraragarria! Pelikula hau ikusi eta ahaztu duen inor ez duzu ezagutuko!

1994, Alemania. 104 min. Stephan Elliot.
Terence Stamp, Hugo Weaving, Guy Pearce, Bill Hunter.

**MELOKOTONIO ETA OLINPIADAK**


Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharrenetakoak eta ezagunenetakoak. Belaunaldi ezberdinak beren emanaldi umoretsekin denbora atseginak pasatakoak dira. Gaurko proiektioan, kirola eta olinpiadak izango dira beren umore uneen gaia. Abesti eta istorio barregarriez tartekatutako emanaldiaz gozatzeko aukera izango duzu Gezalara hurbilduz gero.

2002, EH. 60 min. Txirri, Mirri eta Txiribiton.
Txirri, Mirri eta Txiribiton.

**POXPOLIN MARISORGIN**


Pirritx eta Porrotx bihurriak norekin eta sorgin izan nahi duen batekin elkartuko dira. Poxpolin neskata euskalduna, alaia eta bihurria da. Sorgin izateko ahaleginetan gure hiru lagunak arituko dira berarekin: aztikerietan, edabeak prestatzen, erratzean hegan egin nahian... Zein baino zein eroagoa ibiliko dira pailazoak lagun berriarekin. Ah! Abestiei dagokionez gure etxeetan hainbestetan entzun ditugun Kutxi, kutxi Mari Lutxi, Urri urri bihurru edo Bum, bum dantzara... entzungo dira.

2003, EH. 70 min. Takolo, Pirritx eta Porrotx.
Takolo, Pirritx eta Porrotx.

ZINE EMANALDIRIK EZ DAGO**SANTAKRUTZAK 2006****ZINE EMANALDIRIK EZ DAGO**
ANTZERKIA Orratz! Ttiki
 Antoxin herensugearen miraria
 Ortzadarraren istorioa
 Eskola zoroa
**BOSTAK 8**


Osaba Quentinek bilera bat du bi zientzialari ospetsuekin. Gau horretan bostak taldeko Julianek lau gizon misteriotsu ikusiko ditu inguruetan. Hurrengo egunean zientzialarien arrastorik ere ez dagoenean bahiketaren susmoak areagotu egingo dira. Bigarren abentura batean, bostak euren osaba eta honek altxor batekin duen zerikusia aztertzen saiatuko dira. Beti bezala, galtza bete lani egin beharko diote aurre gure lagunek.

2000, EB. 100 min. Hainbat.
J.Rooper, M.Williamson, Paul Child, Laura Petela, C.Good.

**RAY**


Jamie Foxxek antzezle hoberenaren bere lehen Oscar saria jaso zuen 2004ean, Ray Charlesen bizitzaren interpretazio apartekoa egiteagatik. Ray Charles EEBetako Albany hirian jaio zen eta 7 urterekin itsu geratu zen. Bizitzan oro har, eta musika munduan bereziki, aurrera egiteko borroka latzak jasan izan zituen. Pelikulak istorio entretenigarria kontatzen du eta horri aparteko musika erantsi behar zaio. R.Charlesen kantaren bat ezagutzen ez duenik ez dagoela ere esango genuke!

2004, EEBB. 152 min. Taylor Hackford.
Jamie Foxx, Kerry Washington, Regina King, Clifton Powell.

**EL AVIADOR**


Howard Hughes dirudunak zeresan handia eman zuen 30-50. hamarkadetako Hollywooden. Aeronautikaren industrian pertsonai nagusia izateaz gain, pelikula ekoiztearena izan zen bere denbora pasa nagusienetako bat. Martin Scorsese handiak, pelikula honetan pertsonai eztabaidatsu horren figura lantzen du Leonardo DiCaprioren gorputzean sartuz. Ez galdu Cate Blanchett Katharine Hepburnen azalean (Oscarra jaso zuen). 2004ean bost Oscar jasotako pelikula da Scorseseren azkenetako lan hau.

2004, EEBB, Japonia, Alemania. 170 min. Martin Scorsese.
Leonardo DiCaprio, Cate Blanchett, Kate Winslet, John C. Reilly.

ZINE EMANALDIRIK EZ DAGO**SANTAKRUTZAK 2006****LA PASIÓN DE CRISTO**

Genero honetako pelikulekin beti gauza bera gertatu ohi da: erlijioa gaitzat hartu, elizaren inguruak haserretu, zeharkako publizitate ikaragarria lortu eta takiletan txanpon hotsa erruz entzun. Fenomeno ekonomiko horretaz gain, artistikoari begiratzen badiogu, lehenengo kuriositatea: antzezle eza-guna den Mel Gibson zuzendari lanetan ikusiko dugu. Bigarrenagoa: kritikak balorazio nahikoa onak egin zizkion askoren harridurarako... Santo Tomasek esan zuen bezala: "Sinisteko lehendabizi ikusi".

2004, EEBB. 127 min. Mel Gibson.
James Caviezel, Maia Morgenstern, Monica Bellucci, Hristo Jivkov.

**DIARIOS DE MOTOCICLETA**

Jorge Drexler abeslari uruguaiarra mundu zabalean ezagutzera eman zuen pelikulak, 2005eko soinu banda hoberenaren Oscar saria eman ziotelako. Pelikulak kontatzen duen istorioa Che Guevara gerrillari iraultzaile izatera iritsi aurretik, Hego Amerikan motorrean egin zuen bederatzi hilabeteko bidaia da. Che Guevara ospetsu eta ezagunaren pertsonaiaren larruan, Gael García Bernal, modan dagoen antzezle mexikarra, ikusi ahal izango dugu.

2004, EEBB, Alemania, EB, Argentina. 128 min. Walter Salles.
Gael García Bernal, Rodrigo de la Serna, Mercedes Morán, Jean Pierre Noher, Lucas Oro.

ANTZERKIA

► Orratx! Ttiki

Irailak 22 eta 23

Ordutegia aurrerago iragarriko da

GEZALA AUDITORIUMEAN

1. Antoxin herensugearen miraria
2. Ortzadarraren istorioa
3. Eskola zorua



Antzezleak azaltzen diren eran: Ihintza Fresnedo, Lierni Etxebeste, Iraia Ibañez, Ane Lasa, Amets Sarasua, Ander Muñoz, Iune Okhasa, Maider Navas eta Enara Arruti.

Antzezleak azaltzen diren eran: Garazi Muñoz, Maddi Olaziregi, Lierni Trinkado, Julen Mayo, Jokin Kuesta, Unai Fresnedo, Idoia Lopez, Jaione Quiñones eta Ekhiñe Legorburu.

Antzezleak: Iraia Ibañez, Unai Fresnedo, Jaione Quiñones, Ane Lasa, Jokin Kuesta, Idoia Lopez, Ander Muñoz, Lierni Etxebeste.